

MARKINA-XEMEIN / Ipuin kontalariak egongo dira ume eta nagusientzat

Gaur hasi eta domekara arte, Munduko Kontu Kontalariak jaialdia ospatuko da. Aurten ere nagusiei zuzendutako ipuin kontalarien ekitaldietako bat Markina-Xemeinen izango da.

NAGORE GOIEASKOETXEA

Orain dela zazpi urte sortu zen Munduko Kontu Kontalarien jaialdia, eta azken urteetan bertan parte hartzen duten mundu guztiko ipuin kontalarietako batzuk pasatu dira Markina-Xemeindik. Oraingoan, Jean Michel Hernandez frantziarra eta Michelle Nguyen vietnamdarra etorriko dira herri bibliotekara, bakoitza istorio eta ipuinak kontatzeko modu bereziagaz. Biek barikuan 22:30ean eskainiko dute emanaldia.

Hernandez antzerki aktore eta zuzendaria Toulouseko Chergui Theatre konpainiako sortzailea da. Frantzian, Espainian, Portugalen, Marokon, Venezuelan eta Kuban ibili da antzezten. Frantziarrak Historia de una barca kontatuko du.

Emakumeen istorioak

Bestalde, Nguyenek Lassaad Antzerki Eskola Internazionallean (Brusela) jaso zuen formazioa. Berezko narratzailea da, eta jasotako aktore formazioak berbak menperatzera eroan du, eta horrela, ipuinen munduan aurkitu du lekua. Aktore formazioak eta duen narrazio gaitasunak bat egiten dute, eta emaitza ezinobea da. Frantzian, Belgikan, Suitzan, Espainian eta Quebecen aritu izan da ipuin kontalari. Bizimodu gaitza izan duten emakumeen istorioak kontatzen ditu ipuinak esperientzia pertsonalekin nahastuta. Kontatzen dituen hainbat istorioren artean Amidulce izenekoak aukeratu du Markina-Xemeinen kontatzeko.

Nagusiez gainera, umeei ere ipuin kontalari saioa izango dute. Kasu honetan, baina, zapatu goizean izango da ekitaldia 12:00etan hasita. Ez dira, gainera, edozelako ipuinak izango, otsoak edo azeriak izango dira-eta ipuinetako protagonista. Hala ere, hori ez da izango berezitasun bakarra. Alaitz Murok ipuinak kontatuko ditu, eta kontatzen duen bitartean Agurtzane Villate marrazkilariak kontatzen dagoen istorioaren pasarteak irudikatu egingo ditu. Denetara, lau ipuin kontatuko dituzte, eta egiten dituzten irudiak bibliotekan geldituko dira.